

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
- Guztira, 21.606 langabe erregistratu dira uztailen. BAIren arabera, langabezia-tasa % 8,60koa da laugarren hiru hilekoan. - Afiliatutako biztanleek % 0,3 egin dute gora azaroarekin alderatuta, eta urtebetean 6.715 enplegu irabazi dira. Erregistratutako kontratuak –% 28,2 murriztu dira urtetik urtera. - Azalera handietako salmentek urtetik urterako % 1,6ko igoera izan dute abenduan. - Urterik urtera igo dira, bai ostatu-gauak (38.820 gehiago), bai bidaiarien sarrerak (21.871 gehiago). Atzerriko eta estatuko turisten sarrerak igo dira. 2022. urteko laugarren hiru hilekoan 171 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, hau da, 2021. urtearekin alderatuta –% 1,2ko beherakada egon da. - Bilboko aireportuak abenduan 395.777 bidaiari erregistratu ditu, 2021eko abenduan baino 119.372 gehiago. - Bilboko Portuan 3,09 milioi tonako trafikoa erregistratu da abenduan, aurreko urteko hil berean baino % 17,7 gehiago.				
		Azken data	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	186.491	0,3*	abe.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.606	-0,2*	abe.
	Langabezia-tasa (BAI)	8,60	-0,62 pp	2022ko 4. HH
	Erregistratutako kontratuak	10.909	-28,2	abe.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100)	143,5	1,6	abe.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	80.849	37,1	abe.
	Ostatu-gauak (kop.)	148.893	35,3	abe.
	Ekonomia eta enpresa			
	Sortutako merkataritza-sozietateak	171	-1,2	2022ko 4. HH
	Desegindako merkataritza-sozietateak	105	0,0	2022ko 4. HH
	Garraioa			
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	395.777	43,2	abe.	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	3,09	17,7	abe.	

DATU BAT

% 8,60

Langabezia-tasa

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Abenduan 40 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du hilabete arteko $-0,2\%$ ko murrizketa izan dela eta 21.606 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia jaitsi egin da ($-0,6\%$, 71 langabe gutxiago), eta gizonena igo egin da ($0,3\%$), 31 langabe gehiago.

Soilik 25 eta 44 urte bitartekoek izan dute langabezia gehiago hilabete amaieran, zehazki, $0,3\%$ eta 21 langabe gehiago. 16 eta 24 urte arteko tartean eta 45 urtetik gorakoen artean langabeziak $-1,4\%$ eta $-0,3\%$ egin dute behera hurrenez hurren (24 eta 37 langabe gutxiago, hurrenez hurren).

Sektoreen arabera, lehen sektorean 5 gutxiago daude ($-1,2\%$) eta zerbitzuen sektorean 37 gutxiago ($-0,2\%$). Langabeziak gora egin du industrian, 28 pertsona gehiagorekin ($1,8\%$), eta eraikuntzan 11 gutxiago daude ($0,8\%$).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak $-1,7\%$ ko beherakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Langabeek hiriburu guztietan egin dute behera. Sevillak izan du murrizketarik nabarmenena: $-3,0\%$.

Euskal hiriburu taldean (G-3) langabeziak $0,1\%$ egin du gora. Langabeziak gora egin du Gasteizen eta Donostian ($0,4\%$). Iruñean langabeziak $-0,4\%$ ko beherakada izan du.

EAEn langabeziak $0,1\%$ egin du gora, eta Gipuzkoan $1,2\%$. Araban $-0,4\%$ egin du behera eta Bizkaian $-0,4\%$.

2022. urteko balantzea Bilbok 2021ean baino 525 langabe gutxiagorekin amaitu du urtea ($-2,4\%$). Urteko balantzean, langabeziak behera egin du emakumeen eta gizonen kasuan ($-0,1\%$ eta $-5,1\%$, hurrenez hurren).

Zerbitzuetan izan ezik (167 langabe gehiago, $1,1\%$), beste sektore guztietan langabe gutxiago daude. Eraikuntzan 284 gutxiago daude, ($-16,5\%$), industrian 148 gutxiago ($-8,7\%$) eta lehen sektorean 44 gutxiago (-10%).

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Abendua	21.606 pertsona
	$0,2\%$ ▼
Emakumeak	$0,6\%$ ▼
Gizonak	$0,3\%$ ▲

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$0,2\%$ ▼
G-5	$1,7\%$ ▼
G-3	$0,1\%$ ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliazioa

Abenduaren amaieran 186.491 afiliatu erregistratu ziren Bilboko enpresetan, hau da, azaroan baino 495 gehiago (% 0,3).

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 500 lan gehiago daude azaroan baino (% 0,3), 35 gehiago Etxeko Langileen Araubidean (% 0,6) eta 11 gehiago gainerako araubide berezietan (nekazaritzakoa eta itsasokoa). 51 enplegu galdu dira Langile Autonomoen Araubide Berezian (–% 0,2).

Sektorez sektore, afiliatu gehiago daude zerbitzuen sektorean (564 afiliatu gehiago, % 0,3), eta mantendu egiten dira industrian (% 0,0). Bestalde, behera egin dute eraikuntzan (63 gutxiago, –% 0,7) eta lehen sektorean (6 afiliatu gutxiago, –% 2,1).

Zerbitzuei dagokionez, nabarmentzekoak dira Gizarte Zerbitzuetan egondako ehunekoen gorakadak (% 3,6 eta 344 afiliatu gehiago), bai eta administrazio publikoan (% 2,4 eta 282 gehiago) eta aisialdi eta kulturen egondakoak ere (% 1,3 eta 54 gehiago). Garraioan eta biltegiratzean ere enpleguak gora egin du (% 1,1 eta 98 gehiago), baita ostalaritzan (% 1,0 eta 102 gehiago) eta merkataritzan ere (% 0,8 eta 163 gehiago). Besteak beste, behera egin dute administrazio-jardueretan (409 afiliatu gutxiago), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (152 gutxiago) eta ostatueta (38 gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak –% 0,5eko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Sevillak izan ezik (+% 0,1) taldeko hiri guztiek gora egin dute afiliazioari dagokionez. Zaragozak izan du beherakadarik esanguratsuena (–% 1,2).

G-3ko hiriburueta, afiliatuen kopurua, batera hartuta, –% 1,2 jaitsi da. Iruñean –% 1,8 murriztu da, Donostian, –% 0,7, eta Gasteizen –% 1,0.

EAE, orokorrean, –% 0,2 egin dute behera afiliatuek. Afiliazioak behera egin du Gipuzkoan (–% 0,3) eta Araban (–% 0,9). Bizkaian enpleguari eutsi zaio (% 0,0).

2022. urteko balantzea. Hiriko enpresetan aurreko urtean baino afiliatu gehiagorekin itxi da 2022. urtea. Hain zuzen ere, igoera % 3,7koa izan da; hau da, 6.715 enplegu gehiago egon dira.

Araubide Orokorra % 4,5 hazi da (6.762 afiliatu gehiago), eta Etxeko Langileen Sistema Berezia % 1,4 (90 gehiago). Beste batzuk epigrafea % 4,4 hazi da (28 gehiago). Autonomoen Araubide Berezian afiliazioak behera egin du, –% 0,7 (165 gutxiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 6.451 afiliatu gehiago erregistratu dira (% 4,0), eta eraikuntzan 346 gehiago (% 3,9). Industrian, berriz, 14 afiliatu gutxiago (–% 0,2) eta lehen sektorean 64 gutxiago (–% 18,9). Zerbitzuetan, hauexek dira enpleguan gehien hazi diren adarrak: ostatuak, ostalaritza, aisialdirako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak. Merkataritzan enpleguak ez du gora egin, eta bilakaerarik txarrena izan du urterik urte.

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Abendua	186.491 pertsona
	% 0,3 ▲
Araubide Orokorra	% 0,3 ▲
Autonomoak	% 0,2 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,6 ▲
Beste batzuk	% 1,7 ▲

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Abendua	186.491 pertsona
	% 0,3 ▲
Zerbitzuak	% 0,3 ▲
Eraikuntza	% 0,7 ▲
Industria	% 0,0 =
Lehen sektorea	% 2,1 ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,3 ▲
G-5	% 0,5 ▼
G-3	% 1,2 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Kontratuak

Abenduan 10.909 kontratu sinatu ziren Bilbon, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino $- \% 28,2$ gutxiago (4.284 kontratu gutxiago). 2021eko abenduarekin alderatuta, behera egin dute gizon zein emakumeei egindako kontratuak: 2.424 eta 1.860 gutxiago izan dira, hurrenez hurren.

Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen $\% 50$ (5.451 kontratu); $\% 30,3$, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.306), eta gainerako $\% 19,7$ 25 urtetik beherakoei (2.152).

Sektoreen arabera, kontratuak behera egin dute zerbitzuetan (3.958 kontratu gutxiago), industrian eta eraikuntzan (208 eta 125 gutxiago, hurrenez hurren). Lehen sektorean baino ez dute gora egin (7 gehiago).

Zerbitzuei buruzko datu absolutuetan, ostalaritzako kontratuak (1.044 gutxiago) behera egin dute, bai eta honako hauek ere: administrazio-, garraio- eta biltegiatze-jarduerak, osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak, informazioa eta komunikazioa eta merkataritza (1.021, 545, 420,311 eta 245 gutxiago, hurrenez hurren). Kontratuak pixka bat egin dute gora higiezin jardueretan eta finantza-jardueretan zein etxeko zerbitzuan (14, 13 eta 11 gehiago, hurrenez hurren).

Kontratazio-esparru berriarekin, $\% 79,0$ egin dute gora kontratu mugagabeak. Aldi baterako kontratuak guztien $\% 78,1$ izan dira. Abenduan 7.850 pertsona kontratatu dira eta $\% 58,8$ emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,39 kontratu.

2022. urteko balantzea. Urtearen amaieran 149.148 kontratu erregistratu dira, 2021. urtean baino 9.323 kontratu gutxiago ($- \% 5,9$). Guztira, 69.966 pertsona kontratatu dira, aurreko urtean baino 4.331 gehiago, hau da, $\% 6,6$ gehiago.

Sexuen arabera, emakumeei 85.096 kontratu egin zaizkie (2021. urtean baino $- \% 4,4$ gehiago) eta gizonen 64.052 kontratu ($- \% 7,8$). Gazteen segmentua nabarmendu behar da; izan ere, kontratuak segmentu honetan baino ez dute gora egin ($+ \% 1,9$).

Kontratuak behera egin dute industrian ($- \% 15,4$), eraikuntzan ($- \% 14,5$) eta zerbitzuetan ($- \% 5,1$). 2022. urtean erregistratutako kontratuen $\% 27$ mugagabeak dira.

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta

BAIren laugarren hiruhilekoa ixteko orduan, Bilboko udalerriko eta lurraldeko langabeziaren datuak behera egin dute, baina, aldi berean, enplegua ere murriztu da.

Okupazioak behera egin du emakumeen eta gizonen artean, langabezian ez bezala, non emakumeak baino ez dira onuradun izan.

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Abendua	10.909 pertsona
	$\% 28,2$ ▼
Emakumeak	$\% 22,4$ ▼
Gizonak	$\% 35,2$ ▼
Lehen sektorea	$\% 87,5$ ▲
Industria	$\% 34,9$ ▼
Eraikuntza	$\% 31,6$ ▼
Zerbitzuak	$\% 27,9$ ▼
Kontratatutako pertsonak	$\% 20,7$ ▼

Biztanleria Aktiboaren Inkesta BAI

Δ Hiruhileko artekoa

IV. hiruhilekoa

Langabezia-tasa	$\% 8,60$
	0,62 pp ▼
Emakumeak	3,04 pp ▼
Gizonak	1,42 pp ▲
Biztanleria aktiboa	$\% 2,8$ ▼
Biztanleria landuna	$\% 2,2$ ▼
Biztanleria langabetua	$\% 9,0$ ▼

Laugarren hiruhilekoan biztanle landunek $-2,2\%$ egin dute behera Bilbon, eta emakume gehiago izan dira (3.100 gutxiago), gizonekin alderatuta (300). Eraikuntzan izan ezik, okupazioak behera egin du hiribilduko beste jarduera-sektore guztietan. Industrian beherakada handiagoa izan da (-3.100), bai eta zerbitzuetan ere (-2.600).

Hiribilduan bizi direnen enplegu-tasa $53,31\%$ da; emakumeen kasuan, $47,18\%$ da eta gizonen kasuan $59,95\%$.

Hiruhileko honetan jarduerak behera egin du beherakadak egon direlako okupazioan eta langabezia, eta hiruhilekoen arteko datuetan emakumeen artean baino ez da murriztu.

Hori horrela, azken datuan $8,60\%$ egin du behera udalerriko langabezia-tasak laugarren hiruhilekoan ($6,79\%$ emakumeen kasuan eta $10,09\%$ gizonen kasuan).

2022ko urte arteko balantzea. Urte arteko batez besteko kopuruak:

2021ean baino $2,4\%$ landun gehiagorekin amaitu du Bilbok 2022. urtea.

Biztanleria aktiboak gora egin du ($0,3\%$), eta inaktiboak behera ($-6,3\%$).

Eta, batez beste, langabezia-tasak $1,84$ p.p. egin du behera, eta $9,62\%$ izan da.

MERKATARITZA

Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko $1,6\%$ igo dira abenduan egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, $2,1\%$ igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek $-6,0\%$ egin dute behera 2021eko abenduarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak $15,0\%$ igo dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko $4,0\%$ gorakada izan du.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte arteko Δ

Abendua	143,5
Salmenta-indizea	$1,6\%$ ▲
- Elikadura	$6,0\%$ ▼
- Gainerako produktuak	$15,0\%$ ▲
Landunak	$4,0\%$ ▲

2022. urteko balantzea. 2022ko hamabi hilabeteetan, Bizkaiko saltoki handietako salmentek gora egin dute % 0,9an, aurreko urtearen aldean.

Aldi honetan, jatekoen salmentek $-\% 4,3$ egin dute behera, eta gainerako produktuenak % 8,6 handitu dira.

Landunen kopurua % 3,3 areagotu da.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban ($-\% 2,1$) eta Gipuzkoan ($-\% 1,3$). EAEn, orokorrean, $-\% 0,2$ egin dute behera.

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduek 148.893 gaualdi erregistratu dituzte abenduan. Aurreko urteko hil berean baino 38.820 gehiago zenbatu dira (% 35,3).

Bidaiarien sarrerak ere nabarmen egin du gora (% 37,1). Estatuko bidaiarien kopuruak gora egin du, baita atzerritarrenak ere.

Estatukoak hiribilduko hoteletan ostatu hartu duten bidaiari guztien % 71,6 izan dira, eta % 34,4ko gorakada izan dute. Atzerritarrek % 44,5 egin dute gora 2021eko abenduari dagokionez.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 23,6), gero EAEkoak (% 20,5), Kataluniakoak (% 11,3) eta Andaluziakoak (% 8,7). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 25,1), Portugal (% 8,3), Italia (% 8,0), Alemania (% 6,7) eta AEB (% 6,3).

Batez besteko egonaldia 1,84 ostatu-gau izan da bidaiari bakoitzeko.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 46,1 eurokoak dira, % 34,1 gehiago urte artean.

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 33,5 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 33,8), Donostian (% 35,3) eta Iruñean (% 28,3).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 23,9ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 38,9).

Ostatu-gauak

Urte arteko Δ

Abendua	148.893 ostatu-gau
	% 35,3 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 34,6 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 37,5 ▲

Bidaiarien sarrera

Urte arteko Δ

Abendua	80.849 sarrera
	% 37,1 ▲
Nazionalak	% 34,4 ▲
Atzerritarrek	% 44,5 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte arteko Δ

Abendua	1,84 ostatu-gau/bidaiari
	% 1,6 ▼

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 35,3 ▲
G-5	% 23,9 ▲
G-3	% 33,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

2022. urteko balantzea. Jarduera turistikoak, 2022. urtea amaitzeko, gora egin du sektoreko turismo-adierazle guztietan eta sektorearen errentagarritasunean. 1.978.327 ostatu-gau eta 1.038.192 bidaiari-sarrera erregistratu dira (2021ean baino % 66,0 eta % 64,4 gehiago, hurrenez hurren).

Batez besteko egonaldia 1,91 ostatu-gaukoa da bidaiari bakoitzeko, 2021ean lortutakoa baino altuagoa (1,89).

2019. urteari dagokionez, atzerriko turismoaren % 95,5 berreskuratu da, bai eta logela bakoitzeko diru-sarreraren % 93 ere. Estatuko turismoan pandemia aurreko datuak gainditu dira.

ENPRESAK

Merkataritza-sozietate berriak

2022ko laugarren hiruhilekoan Bilbon 171 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek -% 1,2ko beherakada dakar aurreko urteko aldi beraren aldean (2 sozietate gutxiago datu absolutuetan).

Sektoreka, zerbitzuetan 120 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 9 gutxiago; industrian 38 sortu dira eta eraikuntzan 13 (hurrenez hurren, 18 gehiago eta 10 gutxiago).

Laugarren hiruhilekoan 105 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean desegindakoen kopuru bera. % 79 zerbitzuen sektorekoak dira, % 12 eraikuntzakoak eta % 6 industriakoak.

2022. urteko balantzea. 2022. urtearen amaieran, guztira, 729 sozietate berri sortu dira hiribilduan, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 15 gehiago (% 2,1).

Sektoreka, zerbitzuetan sortutako sozietateen kopurua baino ez da handitu urterik urte, eta, guztira, 582 izan dira (33 gehiago). Industrian eta eraikuntzan, bi kasuetan, 73 erregistratu dira (8 eta 6 gutxiago, hurrenez hurren) eta lehen sektorean 1 sortu da (4 gutxiago).

2022. urtean guztira 401 sozietate desegin dira, 2021. urtean baino % 8,4 gehiago. Zerbitzuen sektoreari % 77,8 dagokio.

Merkataritza-sozietateak

Urte arteko Δ

IV. hiruhilekoa

Sortutakoak	171 sozietate
	% 1,2 ▼
Deseginda	105 sozietate
	% 0,0 =

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuan 395.777 bidaiari erregistratu dira abenduan; beraz, urte arteko % 43,2ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 119.372 bidaiari gehiago). 2019ko abenduarekin alderatuta, bidaiarien trafikoaren % 99,6 berreskuratu da.

Igo egin dira estatuko hegaldietan izandako bidaiariak (66.510 gehiago urte artean, % 34,4), eta indartsuago nazioartekoetan (% 65,4 hazi dira, eta 53.458 bidaiari gehiago egon dira).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.380 izan dira (% 15,7), baina garraiatutako salgaiak igo dira (% 7,6).

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 45,1eko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 56,5 handitu da. Hiru aireportuetan gorakadak egon dira bidaiarien kopuruan.

2022. urteko balantzea. 2022. urtearen amaieran, Bilbok % 98,7ko gorakada izan du bidaiarien trafikoan aurreko urtearen aldean, 5.129.583 bidaiari lortu baitira; beraz, kopuru absolututan 2021. urtean baino 2.548.672 bidaiari gehiago egon dira Nolanahi ere, urteko datu horrek esan nahi du 2019an erregistratutako aire-trafikoaren % 87 berreskuratu dela.

2021. urtearekin alderatuta, hegaldi nazionaletako bidaiariak % 65,6an egin dute gora, eta nazioarteko hegaldietakoek % 214,4 (1.310.322 eta 1.235.412 gehiago, hurrenez hurren).

Garraiatutako salgaien urteko datuari dagokionez, % 42,2 egin dute gora, eta operatutako hegaldiek %70,0.

Portuko garraioa

Bilboko Portuak 3 milioi tonako trafikoa izan du abenduan, hau da, % 17,7 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan abenduan kudeatutako salgaien % 69 izan da, eta urte arteko % 26,6ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak % 19,2 egin du gora (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrek -% 5,2 egin dute behera.

Bidaiarien itsas garraioan, 3.790 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Abenduan itsas bidaia bat eta 727 itsas bidaiari erregistratu dira.

Aireko garraioa

Urte arteko Δ

Abendua	395.777 bidaiari
	% 43,2 ▲
Nazionalak	% 34,4 ▲
Nazioartekoak	% 65,4 ▲
Salgaiak (kg)	% 7,6 ▲
Hegaldiak	% 15,7 ▲

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 43,2 ▲
G-5	% 45,1 ▲
G-3	% 56,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Urte arteko Δ

Abendua	
Portuko trafikoa	3,09 milioi tona
	% 17,7 ▲
Bidaiariak garraiatzea	3.790 bidaiari
	% 13,2 ▲
Itsas bidaiariak (kop.)	727 itsas bidaiari
	% 47,6 ▼

2022. urteko balantzea. 2022. urtea amaitzeko, 2021. urtearekin alderatuta, % 5,1eko gorakada egon da portuko trafikoan, eta garraiatutako 32,9 milioi tonatara iritsi da.

Solteko salgai likidoen trafikoan, % 15,1eko gorakada egon da. Beste alde batetik, solteko salgai solidoen trafikoak eta, oro har, salgaienak behera egin dute (–% 19,3 eta –% 2,4, hurrenez hurren).

Gora egin dute itsas garraioko bidaiariek (% 189,8). 2022. urtean 109.348 itsas bidaiari eta 78 itsas bidaia erregistratu dira.

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.606	-0,2	2022ko abe.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	186.491	0,3*	2022ko abe.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	10.909	-28,2	2022ko abe.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	163,7	-2,8*	2022ko IV. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	149,6	-2,2*	2022ko IV. HH
Langabeak (milakotan)	14,1	-9,0*	2022ko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	8,60	-0,62 pp	2022ko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	109,6	0,3*	2022ko abe.
Afiliatutako pertsonak**	19.750	0,8*	2022ko abe.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	100,7	0,5	2022ko III. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	143,5	1,6	2022ko abe.
Turismoa			
Bidaariaren sarrera	80.849	37,1	2022ko abe.
Ostatu-gauak	148.893	35,3	2022ko abe.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,84	-1,6	2022ko abe.
Hoteletako okupazio-maila (%)	48,6	10,1 pp	2022ko abe.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	46,06	34,1	2022ko abe.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BGPd	113,2	3,9	2022ko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	116,0	2,4	2022ko aza.
Merkataritza-sozietate berriak	729	2,1	2022
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	106,9	11,9	2022ko III. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.345,02	29,3	2022ko III. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2.784,03	-1,2	2022ko III. HH
Garraioa			
Bidaariak aire bidezko garraioa	395.777	43,2	2022ko abe.
Hegaldiak	3.380	15,7	2022ko abe.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	3,09	17,7	2022ko abe.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENaren, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Biztanleria aktiboaren inkesta




Erregistratutako langabezia




Afiliatuak



Erregistratutako kontratuak



Sozietate berriak



Hotel-gauak

